

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

## Ione Golvano Escobalek bere Tesia irakurri du

2015/11/17

Azariaren 13an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ione Golvano Escobal Doktoregaiak bere doktoretseia aurkeztu zuen Ikastetxe nagusiko Areto Nagusian. Tesiaren izenburua Corrosion and tribocorrosion characterisation of Ti13Nb13Zr alloy in oral environment for dental implants eta tesi zuzendariak: Andrea Aginagalde eta Ignacio Garcia Diego. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso du.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- **Mahaiburua:** Stefano Mischler (EPFL) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Raquel Bayón González (TEKNIKER-ik4) Dk. And.
- **Mahaikidea:** Rafael Rodríguez Trías (UPNA) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Ana Conde del Campo (CENIM) Dk. And.
- **Idazkaria:** Guilson Tato Vega (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Doktore tesi honetan ahoko inplantologian etorkizun handiko aleazio bat karakterizatu da. Ti13Nb13Zr aleazioan, hezurraren propietate mekanikoekin antz handiagoa izateaz gain, bere aleanteak ere biobateragarriak dira. Karakterizazioa korrosioaren eta tribokorrosioaren ikuspegitik egin da, betekizun horiek halabeharrez gertatuko baitira ahoaren ingurunean, ingurune erasokorretan egindako mastekatze ekintzagatik, esaterako, txistua tartean dagoenean.

